


**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
54n. ZENBAKIA
ORRILLA
- 1982 -**



ANDRA MARI-GORLIZ

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

ZELAN BIZI

LENENGO BIZI

Bizitea atsegin jaku eta orixe da lenengo lortu gura dogun elburua: Bizi!
Eta ori billatzen dogu beste ondasun guztiak baiño lenago ta gogo aundiagoaz.
Orra or zergaitik diran «sekuestroak» edo baitzeak ainbeste diru eskatzeko bide.

* ** *

BIZI - ERAK

Baiña bizi izan ezkeru, urrengoa ondo bizitea da.

Eta zori txarrez gitxi dira mundu zabalean ondo bizi diranak. Alde batetik gosez eta baztertuta asko bizi diralako. Baiña baita, beste alde batetik, aspaldion goserik ikusi ez dogunok be beste zori txar batzuk daukaguzalako.

Gure izurria, plagea, ituntasuna, tristetasuna dogu. Eta ez uste izan gosea baiño gauza ohea danik. Ituntasunak asko daroaz eriotzara: Bilbo'ko ibaian, itxas-ertzeko atxetan, etxeetan, kaleetan... Ilda agertzen da jentea eta geienetan ez da argitzen zergaitik eta zelan il diran.

Izurri au geroago ta zabalako dabil gure artean. Eta jakin egin bear leiteke, agertzen ez diran gaisoak osatu-eziñak diralako, eta gaiso au gure gizartearena ba'da, osatu-bearrekoa dalako.

* ** *

ITURRIAK

Eta nondik ete dator ituntasun au? Iturri bi batez be agertuko neukez nik: Alkoola ta drogea. Alkoola antxiñako gaisoa dogu euskaldunok eta drogea oraintsu asi jaku, zori txarrez, zabaltzen.

Iturri bi onein aurka ba-dauke gure agintariak zertan lan egin eta zori txarrez ez dabe ezer egiten edo oso gitxi da agiten dabena. Gure agintarien erru aundi bat dala uste dot nik ori, erriaren onerako aukeratuak izan diran ezkeru.

* ** *

POZBIDEAK

Baiña ez da naikoa gaitx aundi oneri geiago egiteko legeak emotea ta mugetan zaintzailleak ugaritzea. Ez, ori baiño bearrezkoagoa da, ori egin ondoren, gizarteari pozbideak emotea.

Non alkartu leitekez gure gazteak alkooloik edan barik?

Non alkartu leitekez gure ezkondu-bikoteak?

Erantzuna erreza da. Alkool-bako egon-lekuak ipinten ba-dira, utsik geratuko dira. Baiña erantzun orrek be bigarren erantzuna dauko: Alkoolkeriak aurrera jarraitzen ba'dau, droga-bideak aurrera ba'doaz, gureak egin dau.

Pozbideak billatu bear dira euskaldunentzat eta orretarako errietako ta eleizetako arduradunak burua geitxuago estutu. Beste era batera ezi bearko dogu, edo obeto esana ba'da, beste era batera azi bearko dogu gura erria.

Orretarako beste barik izaten da laterrietan ministeritza bat: Ondo bizitearen ministeritza. Eta ba-dauko lanai

ARRAIN ZURIAK ETA URDIÑAK

Askoren kezka, jakingurea eta zeaztu naia.
Zein da arrain zuri eta zein arrain urdin?
Osagilleak arrain zuria jateko agintzen dabene-
tan eukiten ditue batzuk euren ezpaiak.
Alaz eta ortan aitua diñoenez, arraiña ez da be-
reiztu bear zuri eta urdin lez. Arraiña giartsu eta
saintsu lez bereiztu bear litzake.

* * *

Giartsu lez artu bear da zuritzat daukaguna. ezkerro, kontuan euki bear da bein-beingoz mailla ba-
Saintsu (koipetsu) lez urdintzat erabilten doguna. ten sartzan diran arraiñak, euren denporaldi berezie-
Eritxi onetako da Roberto Lotina, bilbotar boti- tan beste maillan sartzeko aukera eukitea.
kario ospatsua. Arraiñean, sain edo koipetarako, ze ikusi asko
Orrela, arrain giartsu lez, zuri lez, sartzan dira le- dauke ugaritzeko aldiak, ibillaldi denporak eta abar,
batz, faneka, abadixo, oillar eta antzekoak. eta arraiña txiki izan edo bere mailla ta neurri jato-
Saintsu edo koipetsu lez, edo nai ba da urdin lez, rrrera elduta egon.
atuna, sardiña, antxoa, berdela, makaela, txitxarro
eta abar.

* * *

Eta zetatik bereizte au?
Lengo denporetan arrain urdin edo saintsu lez
etsiten zan, bere izatean euneko bost baiño sain (kol-
pe) geiago daukana. Ortik berakoa zuritzat, giartsu-
tzat.
Geroago, aitu (tekniku) batzuz eskabidez, arrain
mamin edo aragiaren berogarri eta abar ikusita, giar-

tsu edo zuritzat euneko bi koipetara elduten ez dira-
nei deitzea eskatuten da, eta euneko bostetik gor-
koei koipetsu edo urdin deitura, eta bitik bostera bi-
tartekoei, erdi koipetsu. Gaztelaniaz «semigrasos».

Azken mailla onetan sartzan da besigua.

Alaz eta guzti, saintsu eta giartsu deitura eroan
ten sartzan diran arraiñak, euren denporaldi berezie-
tan beste maillan sartzeko aukera eukitea.

Arraiñean, sain edo koipetarako, ze ikusi asko
dauke ugaritzeko aldiak, ibillaldi denporak eta abar,
eta arraiña txiki izan edo bere mailla ta neurri jato-

Arrain zuriak ur geiago eukiten dabe euren giar-
retan, urdiñak baiño.

Gaurko beste jakin nai bat alikaturako proteinen
barri eukitea izaten da. Onetan aitua diñoenez, zuri
nai urdin deitu, giartsu nai saintsu ta koipetsu mai-
llan sartu, mota bietan bardintsu daukez proteinak.

AUGUSTIN ZUBIKARAI

BIZI

*Bizitzaren balioa
ederrean, eder...
betetasun lotu
askagabea
loia...
garbia...
antzekoa edo
balitz: lezake
ez dana danez
litzateke
ala ez?
filosofikoki*

*ederki,
ongi,
on,
oi!
baiña, zertarako?
itz...
balitz...
bazan...
baletor...
ba, bai ba, ba...
baldin era...
ezkerro...*

*espero...
biar edo etzi
ezin dok ezi
irea ik...
zelan gu guztiok
guztioena
gure geurea
eziko ete dogu...
asi, asita, asten, asiko
baiña noizko eziko?*

MUNIATEGI ASIER

EUZKERA'RI UTS!

Beste batzuetako antzera, Batzoki bateko batzar baten izan nintzan orain alditxu bat eta, beste jazokun batzukaikitik be bai baiña, benetan samindurik bertatik urten nebana, euzkerazko itz bat be batzar ortan ez entzuteagaitik izan zan.

Bilbo'tik berantza edo Enkarterrian, bertako Batzoki baten izan ba'litz ez nintzan bat be arrituko. Edozeinek dakian lez, alderdi ortako euzko-anaiak, gitxi batzuk izan ezik, ez dabelako gure Aberriaren izkuntza, EUZKERA ikasteko zoririk, baiña, Ibaizabal ibai-ertzian gorantzako euzko Batzoki baten euzkerarik ez entzuteak geroago ta geiago saminduten gaitu, ainbeste euzkaldazleren alegin guztiak urte askotako egiñenak alperrekoak idurituten yakuzalako.

* * *

Sarritan esan da, euzko-batzokiak txikituak edateko edo musean egiteko baiño beste zerbait ondasungarri-rako izan bear dabela.

Eta zorionez, orretara dira batzatoki orrētariko asko; Euzko Alderdi Jeltzalearen eginkizun txalogarriak alderdikideai, ta jakin nai dabenai, adirazo ondoren euzkera ikasi edo landuteko,

abesti aberkoiak gaztediari, batez be, irakatsiteko, euzko dantzaga garbiak ikasteko, euzko edestia edo kondaira al danik ondoen oñarriteko to abar luze bat, bide batez bertoko erriketa, politika, obeto esanda abertzaletasuna sus-traituteko.

Orixe ez -daukagun arte gaitz izango dalako euzkeraganako maitasuna eukitea.

Eta maitasunik ez dabena-ri, ainbat gaitzago izango jako here Abarriaren izkuntzaga ikastea, ez dautselako ajolarik, nai-ta sarritan entzuna izan «ez-dagola euzkera barik benetako Euzkadi'-rik.

* * *

Esan doguna lortuteko edo al-danik zuzenen aurrera eroateko, baiña, burukideak aututen diranean, begirunerik aundienaz aukeratu bear litzakez, euzkerazaleak, euzko oituretan eta euzko arlorik geienetan ondo oñarrituta edo ondoen gertuta dagozananak, naita erderazko itz polit eta labanak ondo esaten ez dakien.

Bada, bestera euzkerarik ez dakianak eta ikasteko ardurarik ez dabenak, gaitz izango dabe besteai ikasiazoten.

* * *

Lenago esan dogunetik gaiñera, beste oztopo bat be ba-dogu gure izkuntzari inder geiago emoteko: Ez dala, bear litzaken lez, euzkera jakitea bearrezkoa lantegietan sartzeko, batez be Udaltexean, Aldundegietan eta, zertan esan be ez, euzko izparkaritzan eta Euzko Jaur-laritzako arlo edo sailletan.

Gaur-egun orreik diralako tokirik berezienak, batez be gazteantzat.

* * *

Ni beintzat, sarritan geratutzen naz arrituta abertzale purrukatutzat euren burua daben askogaz, jaio diranik geiago Euzkadi'ko alderdi euzkaldunean bizi ta euzkera teutik be ez dakiela ondoren, bada, nik ez dot uste orren gaitza izango danik euzkera mintzatzen dan errietan euzkera ikasten, ze, danok dakigun lez, asko dira azkenengo urteotan ikasi dabenak, eta ez danak abertzale diranak.

* * *

Ori bai, nai izan bear eta, baten baiño ez ba'da be ol-doztu egin bear Euzkadi'ren benetako izkuntza euzkera dala, gure Aberria'ri berezitasunik argiena emoten dautsona ABENDERRI lez.

ALTUNA'TAR JOSU

BIZKAI'KO IKASTOLETAKO UMEEN ARTEAN, EZ DA GAUR EUZKERAZ ENTZUTEN..

IRAKURTEN

Orrexek ziran, gitxi gora bera, lengo egun baten entzun nebazan berba batzuk.

Nire etxean nengoan «EUKALTZAINDIARI EPAIKETA» irakurten. Latiegi tar Bizentek eta Oñatibia tar Dunixik oraintzu argitaratu dabena eta euzkaldun guztiak irakurri bear leukien liburutxu mamintsua.

Arratzaldeko ordubiak inguru izango ziran eta, gure errialdeko barriren batzuk entzun guraz, urrutikuskiña biztu edo izetu neban. Beingoan abots batzuk entzun eta gizon biren irudiak ikusi nebazan. Gizon bi orreitariko bat, gaztetatik ezagutua dot eta dakidanagaitik, aspaldietan Bilbo'tarra da, baña, egun aretan egin eban izketan, ez eban Bizkai'ko euzkerarik erabilli.

BIZKAIAN BIZKAIERAZ

Gazte nintzanean, Engalderrian egonda nago eta antxe ikasi neban iñoiz aztuko ez jatan antxiñako esaera bat, eta esaera orrek onetaraxe diño: «WHEN IN ROME, DO WHAT THE ROMANS DO». Euzkeraz esanda: «ERROMAN ZAGOZANEAN, EGIZU ERROMATARRAK EGITEN DABENA». Eta ori olan izan ezkerok, ba... nire ustez, Bizkaian egon ezkerok, Bizkaitarrak egiten dabena egin bear leiteke, ezta?

IKASTOLETAN

Bizkai'ko ikastoletako umeak ez dabela, euren artean, euzkerarik egiten? Eta dira ba oneik, gaurko egunetan, entzun bear doguzan itzak...

Nok ukatuko daust, Bizkaian eta Bizkaitarren artean, euzkaldunen aldetik, bertoko euzkera erabilli dala aspaldian?

Orain izango dirala, ez dakit ziur baña, amasei edo amazortzi urte inguru, Bilbon, Emakume Abertzale izen-aundiko talde batek, gizon batzuen laguntzagaz eta legeen barruan izan ziran eskubideei adarretatik oratuz, ortxe, Elcano kalean sortu eben ikastola bat, Bizkai'ko euzkera irakatziz.

Ikastola a txikia zala-ta, Gran Via kalean zabaldu eben bigarren ikastola eder bat.

Aundiago bat bear zala-ta, Lauro ikastola egiteko erabakia artu zen eta ikastola onetan be, lenengo urteetan, Bizkai'ko euzkera, polito-polito irakatsi ta ikasi zan.

An ebiltzan umeei, eurek egiten eben euzkera entzunda, zenbat aldiz esan ete dodan...: Emen dago Bilbon ikasi ta zabalitzen asi dan gizadi euzkalduna, a izan zalako biderik egokiena euzkera aurrera atarateko, ume askok, euren etxeetan, ikastaroari jarraitzeko bidea ebelako, baña...

NASTEIA

Lauron be, beste leku batzuetan jazo zan lez, euzkara barri zaletasuna sartu euskuen orain dirala sei edo zortzi urte ta, EUZKERA MODERDO ORI sartu zanean, antxe ito edo lurperatu ziran, urte batzuetan euzkerek egin ebazan aurrerakadatuak...

ZENBAT IZAN GIÑAN ESPETXERATUAK ETA AINBAT TIROKATUAK ORI BAÑO ERRU GITXIA-GOAGAITIK.

JA URLARITZA

Eta orain, dana danak, Euzko Jaurlaritzak edo dalako orrek, egin bearko daua zeozer okertu diran gauzak arteztu gura ba dira?

Nortzuk dira ba or ibilli diranak, diru laguntza aundiak artu ta erririk erri ibilli diranak, erri orreitan egin diran izkuntza ikasketak Euzkadin sartu guraz? Ain alperrik izan ziran ikasketak aiek? Ikusten dogunagaitik, ez da askorik aurreratu... Eta orain laguntza barrien eske datoz, orain arte jauntxuak dirala ta, or, lotu eziñik ibilli diranak?

Euzkera maite dogulako ez balitz, ainbat barre egiteko berbak entzun eta irakurri doguz aspaldian, baña, euzkeraren oraingo egoera larria, argi ta larri ikusten dogunean, poztuko giñake, lelokeri ta astakeri guztiak alde batera itxi edo jaurti ondoren, euzkaldun guztion laguntza ta indarragaz, gure Euzkera zarra berbiztuta ikusiaz.

DANEAN ZINTZO

Oraingo aldietan be Bizkai'tar asko gara, gure euzkalkiari eutsi gura dautsogunok eta orrexegaitik jarraituko dautsogu, aspalditik artu geunduan bide zuzenari. Kristaua izan gura dauanak, Jaungoikoaren amar Aginduak gorde bear dauz. Arlo onetan ezin leike norberak gura dauana egin: lenango agindua gorde ta bigarrena ez; irugarrena bai ta laugerrena ez. Kristau osoa danak amar aginduak gorde bear dauz. Ostantzean erdi-Kristau edo... izan leiteke, baña.

Eta, abertzaletasunean be orixe jazotenda; Euzko Alderdi Jeltzalekoak bere irakaste ta eginkizunak ontzat artu ba genduzan eta orain be ontzat ba doguz, ez dot argi argi ikusten, ainbat alderdiko abertzaleek (?) erabilli ta zabalduen dabeezan irakaskintza batzuk. Bai Kristaubidean, bai erri-arazo edo politikan, bai izkuntza arazoetan eta bai ta be, beste arazo askotan, oso argi, garbi ta zuzen irakatsi euskuezan gure bideak. Eta ori olan ba da, gure alderdi barruan gagozanok, bai erri-arazoetan, bai izkuntza arloetan eta Kristau bidean be, eztabaidabarik, ontzat artu bear doguz, gure Alderdiak ontzat artu dauzan gauza guztiak. Au da gizon zuzenak egin bear dabena: Izan edo ez izan. Ez abertzale erdirik, abertzale osoak baño. Ortik dabillen beste guztia ba... ori demagogiazko «KOPLA MODERNOAK» izan al leiteke, baña ez zuzentasuna.

BILKAITARREN ESKUBIDEAK

Emen, Bizkaian, Bizkaitar eta Bizkaitar ez diran askok, zuzentasuna erakutsi bearrean, or dabiltz gure eskubideak ondatu edo lurperatu gurean. Argi ikusten doguz euren asmoak eta ondo dakigu zein dan asmo orrean iturburua.

Bizkaitarrok, ezin doguz gure besoak bular ganean gurutzetu ta begi onez begiratu gure inguruan jazoten danari.

Bizkaitarrok, euneko berrogeta zortzi peseta emon ba doguz, Euzko Jaurlaritzak oraintzu egindako «Emission de la Deuda Pública» betetzeko, iñork besteko eskubideak euki bear geunkez eta, orain arte au jazo ez bada be, oraindik aurrerantzean gure agintariak, Bizkaitar euzkera ta bere zabalzaleei, edozeiñek eukiko duen besteko laguntza emongo dautseela uste dogu.

Eta au olan egiten ezpada, gurago dot oker izan, baña... ez dakit ba, bildur andiz beterik nago, etorkizuna ez dogula bear dan besteko argitasunagaz ikusiko. KEPA

BASAURI'KO ABES-BATZA

Gaurko alkar-izketa onetan abestien mundua ikutuko dugu.

Danok gagoz jakitun Euskalerria abes-batzai dagokioenez oso lurralde aberatsa dala eta zerbait jakin-guran Basauri'ko Abes-Batzaren Zuzendari dan Pedro Aldana'rengana joan gara.

—ZER: Noiz eta nork sortu eban Basauri'ko Abes-Batza?

—P. A.: Ereslari ta eresgille izan zan Pedro Bilbao'k sortu eban 1946'garren urtean.



Basauri'ko Abes-Batza

* * *

—Z.: Noiz artu zenduan Abes-Batz onen zuzendaritza?

—P. A.: 1971n. urtean artu neban zuzendaritzaren aginpidea eta gaur-arte neure gain egon da ardua au.

* * *

—Z.: Amabi urte oneitako egin-kizunik garrantzitsuenak azalduko dauskuzuz labur-labur?

—P. A.: Bai... Ainbat eres-aldi eskiñi izan doguz eta danak aita-tzea luzeegia izango dalakoan nago. Batzuk izendatuko dodaz :

- Sortzaille ta Zuzendari izan zanari omenaldia eskiñi geuntson Begoña'n. Baita GOIKO JAUNAREN EZTAI-JAIAK be abestu genduzan Bilbo'ko Eres-Batz edo Orkesta Sinfonika'gaz, au Pedro Bilbao'rena.
- Iruarrizaga'ren MARI JESIAK abestia be bai.
- Asius Arbo'ren ABERRIA'ren askundea izan genduan 1976n. urtean.

- Igazko urtean Tomas Garbitzu'ren ANTON LUMERA, ta abar.

Gabon-Kantak eta eleiz-kantak be sarritan abestu izan doguz.

* * *

—Z.: Zeintzuk dira esku-arteko asmoak?

—P. A.: Begoña'ko eres-aldiara urtero joaten garan ezker, aurren be joateko asmoa daukagu eta emen eskiñiko dogun eres-aldia gertatzen gabiltz.

Abeslariari eresketea edo *solfeo* irakastea be beste asmo bat da. Onetarako abesti barri bat ikasi gura dogunean lenengo ereskatuz asten gara eta gero itzakaz abestu. Beste batzutan ezagutzen doguzan abestiak artu eta ereskatu eta *solfeatuaz* irakasten dautset.

Gaur-eguneko elbururik garrantzitsuenak, abes-batza aunditzea dala esango neuke nik.

Berrogei ta amar abeslarik osten dabe, baiña gure ustez zenbaki au txikitat daukagulako da ugaritze-asmo au.

—Z.: Abes-batzaren aunditze-lana zelan egiten dozue?

—P. A.: Basauri ta inguruetakorrietan, esaterako San Migel'en eta Arrigorriaga'n, ekiñaldi bat egin dogu abots-bearrizana agertuz. Onetarako etxerik etxe txartel batzuk banatu dira eta edate-txeetan eta dendetako ate ta leioetan ipiñi be bai.

* * *

—Z.: Aldizkari onen bidez zer eskatuko zeunskio jenteari?

—P. A.: Ba... itxaroten gagozela eta urreratu daitezela, gizonak naiz emakumeak.

* * *

Z.: Nor edo nor joatekotan babilitz, nora zuzendu daiteke?

P. A.: Zuzenbide onetara: Autonomia 1, Basauri.

* * *

Z.: Asmo sendo au bete daitela ta zorionak zure lanagaitik. AGUR.

MIREN

AMAR BURUBIDE

- Emon ari umezarotik berak gura dauan guztia: orrela, aundi izan daitenean, munduak dana berari zor dautsala uste izango dau.
 - Tentelkeriak ba'diñoz, zuek barre egin: orrela, bera barre-eragille dala uste izango dau.
 - Ez emon umeari arimako azierarik: orrela, fede bagarik eta Jaungoikoari bildur bagarik aziko da.
 - Ez esan umeari «au txarto dago»: orrela, ez dau erru-naasterik izango. Geroago, esate baterako, beribil edo auto bat ostu daualako (edo atrako bat egin daualako) arrapatzen ba'dabe, gizarteak aurrean darabillela uste izango dau.
 - Batu zuek umeak lurrera botaten dauan guztiak: orrela, beste guztiak bera serbitzen diarduela uste izango dau.
 - Itzi egiozue dana irakurten (eta ikusten, eta entzuten): orrela, bere espirituak jolasean jardungo dau edozein lizunkeritan, gordinkeririk lotsagarriena izanarren be.
 - Ekin beti eztabaidan aren aurrean: orrela, sendi edo familia egunen baten austen ba'da, ez da orren jakitun egingo.
 - Umeari berak gura dauan guztia emon: orrela, ez da konturatu be egingo dirua egiteko lan egin bear dauanik.
 - Bete umearen gurari guztiak: orrela, iñoiz be ez da uts eginda geratuko.
 - Errazoia emon egiozue beti: orrela, bere irakasleak, enparaduak eta legea beti berari kalte egiteko gura-ta dagozala uste izango dau.
- Eta auxe diño azkenean: Zuen semea galdu bat izatera eldu daitenean, iñoiz be ezin egin izan dozuela ezer be aren alde, iragarriko dozue. Eta errazoia izango dozue, urrean.
- Guk amaikagarren burubidea jarriko geuke:** Ez irakatsi umeari erlejiño gairik, ezta Jaungoikoaren amar aginduak be, eta maisu-maistra fedebakoen eskuetan itzi: orrela, enparaduen zapaltzaille, kale-lapur, lerkai edo bonba ipintaille eta iltzaille izatera eldu aal izango da, etxekoen eta erriaren ize-nean, eta guztiak gazte goragarritzat artuko dabe, azkenean bere azurrak espetxean geratuarren be. Bitartean, erriko kaleetan zen eta sen onekoak deadarka ta orroka ibiliko dira basatien artean dagoalako, gurasoak euren barruko negarrari eutsi eziñik dagozan artean. Ez dira konturatu askatasuna ta askatasunkeria bardin ez dana.
- Iratzartu, gurasook!

KEREXETA

O MARIA!!

*O Maria, Ama maitia
zeruetako ezta,
eguzkiaren argia
illunetan illargia*

*Jainkoaren Ama ona
bidaztien atsedena
saminduen poztasuna
maitalleen zoriona.*

*Itxastarren ziur kaia,
graziaren iturria
ekandu onen azia,
pekatari osakaia.*

*Zure maitasun biziak
sortuten dauz igaliak,
Zu ereduz, gizakiak
zeruak bete betiak.*

*Euskal errin inguruan
Zu beti zagoz gaiñean
Zure oin garbin atzean,
errez aurrera bidean.*

*Begoñatik Zuk begiak
Bizkai guztian josiak
Kantauriko itsasoak
Zure bidez onetsiak.*

*Arantzazun dozu kabi
Gipuzkuko mendi garbin,
lur orretako gizakik
Zugan beti euren begik.*

*Eztibalitz tontorrean
polit eder Zu aulkian,
Arabako lautadean
Zu erregen biotzean.*

*Orreagako oianan,
ugaria bidez titan,
Zure grazi iturri, an,
onuratsu Naparroan.*

*Ipar alden AINOATIK;
ANGO LUR TA GIZAKIAK
beterik poz atsegiñez
Zure begien ederrak.*

*Gure erri baserriak,
solo zelai ta mendiak
Zure eliz ugariak
betez Zure irudiaz.*

*Ene Ama, txit kutuna
Zaindu gaizuz Ama ona,
Emon grazi ta zoruna
eroan gu Jaunagana.*

GALLASTEGUI

EZPELETA, MIXIOLARIA

Jeronimo Ezpeleta, Iriberry (Olite) ta Uxuen bi-tartean dagoen, Beire erritxuan jaio zan, 1549'garren urtean.

Xabier andiaren lobeaz, amaren aldetik, eta aren bidea artu eban bera bizitzan. Alcalá de Henares'ko Unibertsitatean filosofia ikasketak eginda, Jesusen lagundian sartu zan. Gero, Teologiko beste ikasketak amaitu, ta 26 urte eukazala, emon eban bere lenengo Meza. Eta andik zortzi urtetara, India'ko Goa'ra abiatu zan, mixiolari.

INDIAN

Buru on eta biotz obeko gizona zan ezkerro, Goa'ko jesuita barri edo gaien zain eta zuzendari egin eben, lenengotan. Ez zan, baiña, ori bere oiñeta-ko egoki egiten jakon oskia...

Buru on eta biotz obeko gizona... odol berekoa beba-zan, eta ezin egon bere naiera, etxe barruen sartuta, eta alde egin eban bertotik, andik iru urtera.

Alde egin bai... nora baiña? Portugal'darrak euren menpean euken Malabar lurraldera? Ez! Baegozan an naiko mixiolari. Eta India'ko goi lurraldetara abiatu zan, Tamerlan'en Mogol jentillak bizi ziran, lurraldetara.

AKBAR KAISEREN YAURETXEAN

Amiaka urtetan ibilli zan, batera ta bestera, ango jentillak kristautu nairik. Ainbat arazo andien artean, auxe izan eban arazorik andiena: ez ebalan angoteak onartu nai, Akbar ango Kaiseren oniritxirik ekarri ezik.

India goi-aldean dagoen, Lahore uriburuan bizi zen Akbar. Eta ara abiatu zan ausarditsu gure mixiolaria. Oso ondo artu eban Kaiserek gure gizona. Eta bere jauretxeko edergarriak erakutsi ondoren, ango liburutegi ederra azaldu eutson. Arrituta geratu zan gure gizona ainbat liburu ederren artean, kristau liburuak be ikusi ebazanean.

An egozan, besteak beste, bere osaba Azpilkueta-ren «Teologia Moralis», Iñaki deunaren «Gogo Jar-dunak», Santo Tomasen «Suma» andi ta ederra be...

Kultura andiko gizona, eta biotz zabaleko gizona zala Kaiser a, eta bereala asi zan gure mixioal-aria Akbar kristautu nairik. Maite eban Kaiserek, eta berenean, bere laguntzaille ta onulari lez euki eban il arte; ez zan baiña, Kristo'rengana biurtu.

YAHANGIR KAISER

Andik amar urtera il, eta aren seme Yahangir jarri zan agintzen, aren orde. Bere aita baiño azal obekoa, laster biurtu zan Kristorengana. Ez eban baiña bateorik artu. Ezin, gaisoa, emazte bat bakarraz bizi.

Bera ezin ba, eta jauretxean berekin eukazan iru lobba ebazan misiolariaren eskuetan kristautu egiezan. Eta onek bai, Kristoren bidean sartu ondoren, laster artu eben bateoa.

Laster ugaritu zan Lahoreko kristaudia. Baiña, ez luzaroko. Eta ez euren erruz, arean! Portugal'dar setatiak Mongolen lurraldeak eurenaganatu nairik, asi ziran. Eta ortik sortu zan gerratean, galdu eben euren fedea Kaisaren iru loibeak eta beste ainbat kristautu berrik.

IDAZLARI

Izlari baizen idazlari ona izan zan gure misiolaria. Amar liburu argitaratu ebazan, Mongolen izkuntz biurri aretan: «Itun barria, Psalmoak, Jesukristoren bizitza, Kristoren amabi apostoluak, Zintzo bizitzeko bideak», eta abar...

Orretaz gainera, Mongolen izkuntzaren elizti edo gramatika eta aren iztegi luze bat be egin ebazan. Iru izkuntzetan eginda dagoz liburuok: latineraz, portugaleraz eta perseraz. Orrela erretzu nai eutsen bere lagun eta jarraitzaille bertako bizilagunen artemonetako arazo ta lanak...

ONULARI

Jakintsu, zuur, zentzundun, artetsu, adikor eta mazal,, zalako euren onularitzat artu eben Lahoreko Kaiserek. Euren onularitzat... eta Europatarregaz sarri eukezan, arazo ta auzien bitartekotzat.

Ba-ziren orretarako naiko arrazoi: Kranganor'ko lengotzain izendatua eukan Aita Santuak, eta gizon ospetsu ta anditzat eukien portugaldarrak be. Ori zala, Lahoreko Kaiseren urren izenpetzen eban Ezpeletak, Mongol onek Portugaldarrak egiten eben alkar-itun agiri-etan.

Baiña, lan, arazo, neke ta urteak... ez barkatzen, ta Goa'ra itzuli zan, barriro, 67 urte eukazala, ta ango eliz-ikastetxe nagusiko zuzendari biurtu...

Zoritxarrez biurtu!... Berton urte bakarra eroiala, su ikaragarri batek etxea jo... ta antze geratu zan kixkalduta, oean lo bete-bete egoala.

ELERTIA

BIZITZA

Dima, gizaseme askoren sorleku jator, entzute aundi-koena ziurki. Ementxe dau bere jaiotetxea, Emaldi auzunean, karmeldar eta olerkari errime izan jakun Aita Frantzisko Atutxa'k, ementxe jaioa dogu-ta 1908'ko garagarriaren 23'an.

Larrea'ko karmeldar Ikastetxean egin zituan, lau urtetan beintzat, bere ikasketak, latin eta onen inguruko gramatika, matematika, kondaira, lutelesti ta abar ikasiz Berton osotu eban gero asi-barrien urtean, 1926'an bere burua ziñez Jainkoari eskifirik. Markiña'n ikasi zituan ele-ederra, asketika ta mistika; Gasteiz'en, barriz, Filosofia ta ingurukoak iru urtez. 1931'an, Teologi lenengo urtea amaitu ebanean, Erkal zalapartak zirala-ta, beste askoren artean, Ameriketara joan bear izan eban, Txile'n amaiturik bere eliz-karrera. 1933'an apaizgoa artu eban. Arrezkero, Txile'n ibilli jakun arima-zain; 1965'tik, ostera, Peru'n.

Txile'n, Txukunko'ko Ikastetxean luzaro egon zan maisu. Aurrean zituan arazoak artez beteten zekian, eta dala Txile'n, dala Peru'n Kristoren Berri Ona zabaltzen eztan e^gundo asneru. Asko ikasia ta irakurria zanez,

Jotzen zituan ezker, aren jarduna beti zan adigarri; ez eban nai itz utsik, ez orbelik: zarata bakoak, mamin soil ziran aren izkirimiriak be.

Urri ebillen osasunaz, beti makal samar. Txit sentikorra zan, urduri ta bizia. Begiak su ta salda eukazan geienik, eta oiñak bizkor erbiaren pareko. Otzak geiago egin oi eutsan, eta Euskalerrira etorten zanetan, gorriak ikusi bear izaten zituan. 1972'an, beste batzutan lez, Probintzi-ko Batzar nagusira etorri jakun, eta ondoren, Larrea'n igaro ebazan pare bat illabete, baiña otzaren otzaz gelatik urteke. Peru'ra biurtu ta Lima'n il zan 1973'ko garagarri-luren 27'an.

Lekaide ona, neke-miñen arragoan garbitua. Zeru-bizitzan barru-zabalekoa, zuzena maite ebana; beti egizale, arteza, Jainkoagan sustraiak sakon egindakoa.

EUSKAL LANA

Euskal erritik asago ibillita be, maite eban jaio zan lur-txatala, euskal lur-txokoa; eta euskalduna bere lur gaiñean, onek ditun doai ta edertasun guztiekin. Ez eban iñoiz urruñatu ez utsean euki bere amak erakutsi eutson izkuntza. Naiko idatzi eban or-emen, «Emaldiko», «Atutxa», «Orlo» ta «Eltzegor» izengoitiak beñik-bein erabillirik bere lanak izenpetzean.

AITA FR. ATUTXA, (1908

Setaz eta barne-deiz olerkari genduan A. Atutxa, zoriak ortarako lagundu ez ba'eutsan be. Markiña'n ele-eder (literatura) ikasle zala, 1927'rantza, zirriboratu ebazan aren lenengo lanak itz lauz, au da, prosaz eta bertsoz agertzen dira Donostia'ko «Euskal-Esnalea»n, gerora be lau urtez beintzat ortan jardunik. Gero, baiña, Txile'n eta bazterretan, beste arlo batzuei oratu bearra izanik, ez eban astirik ez gogo aundirik izan neurtitz gaietarako, naiz-ta, berak diñoskunez, euskal arnasa jatorrak ortara

Arildu euskuzan gutun, artikulu ta poesiak arnas bardiñez usain-gozotuak dagoz. Donostia'ko «Euskal-Esnalea»n eta Zornotza'ko «Karmen'go Argia»n idatzi eban geien bat; aldizkari bi oneitan daukaguz aren lanetatik: «Izaki onak», «Txorizua», «Euskera», «Leyotik», «Agur», «Basetxea», «Batua», «Urkiola'ra», «Kaskailluak», «Udabarria», «Larramendi'ko sorgiñak», eta abar.

Nik, neure *Milla euskal Olerki eder* poesi-sorta oso-tzerakoan, olerki batzuk eskatu neutsozan, eta aitatu oneitaz kanpo, ez eban aitatzerik be gure izan; «beste nire olerki edo zereko zer guztiak erre kara bota zeinkez», ziraustan apaltasunez.

Baiña ez, geroztik be erabilli euskun bere luma zorrazta, «Mugarra Begiraria» biribiltzeko batez be. Txile'ko uri nagusian ateratzen zan «Euzkadi»n idazle izan zan, 1945'rantza «Urlo» izenordez lanak firmaturik.

«MUGARRA BEGIRARIA» POEMA

Aren lanik ederrena berau dogu, euskal poema bipilla, Karakas'eko «Gudari» argital-etxeak 1969'an atera eutsona. 94 orrialde daukaz. 2.005 bertso guztira. Euskeraz eta erderaz.



OLERKARI (1973)

Erbestean aberri-miñez bizitakoak egiña dozu poema au, eta ba-dau bere garrantzia, dudarik bage. Muiñari ikutu nai izan ezker, sarrera lez «Argitasunak» dakaz amabost orrialdetan; ondoren, «Azalekotzat», amar aa eta azkenean beste bederatziko bat, lan osoaren ertz eta zertzeladak berezituz. Bion tartean, barriz, olerki oneik: «Ateria» (5 aapaldi), «Erbestean» (20 aapaldi), «Ireltxuaren deia» (24 aapaldi), «Gernika'rena» (36 aapaldi), «Aretxarena» (43 aapaldi), «Mugarra begi aapaldi», «Txabola ta yatorria» (43 aapaldi), «Urrunetik urrunera» (24 aapaldi), «Gauberanduan» (28 aapaldi), «Aindiako otsa» (14 aapaldi), «Eguantza» (21 aapaldi). Amaieran iztegi labur bat damosku.

Mañari gaiñeko aitz-tontor ospetsua da Mugarra. Ego-aldera begitu ezker, Oiz, Bizkargi, Kantauri itxaso; sortaldera, Eskubaratz, Untzillaitz, Aillutz eta Anboto; sartaldera, Kañabete, Aramotz, Lemoatx. Olerkaria Oba'koa dozu, Mugarrak bere arnasa epelez seaska kulunkatu eutsona.

Aita Atutxa beiñola, erbestez gogaitua, bere lurraren eztia goxartu nairik alderrai ebillela, Mugarra oiñera eldu zan, arkaitz-mokor onen barruko kutsu ta indarrez obeto jaubetzearren, bere magalpe samurrean to be egiñik.

Olerkariak, gau-etzangua gertau bitartean, onela abesten dau:

*«Gogoeta goibelez
barrua ernari
ta babes egiteko
aitzulo illetari,
nondik emon burua
gaubeko loari?
Negarra litzakean
niretzat apari.*

*Zeru errukiorrak
orduan antola,
lorrez nenbillan oni
kentzeko nenbillan oni
kentzeko aizola,
orko atxarte baten
zegoan potxola
ta bertan abia lez
gordeta txabola.*

*Ortxe aurkitu neban
gogozko babesa
atsedenaz amaitu
negian igesa
niretzat izanarren
atxarte oieza.
Or egin bear neban
itxarrik amesa.*

*Zoragarritzko abi
baita be gaugiro,
maitegorik ezin
leikena ediro;
goietan illargia
igitzen geldiro
ta bean arranotsa
nentzuan aldiro».*

Gaztetxo zala arkaitz arte areitan sarri ibilli zan. Eta poema au burutzean, Pazifiku itxaso urriñaren ur-egaletan bizi izanagaitik be, askotan nabaitu oi eban barruan gaztetako gomutaen azkurea. «Gogapean zegon —diñosku berak— zerbait ernemiñetan. Eta bein egarin goiztar batez lanean asiezkero eneban bakerik izan amaitu arte

Benetako erditzea zirudin olakoen estura ta miñekin. Aiena luzea sortu zan berez, oraña ta aspaldiko lena bidur meiax loturik. Atsekabeak eroan ninduan lenaren gau-beranduraño, gero sostoan egubarria erakusteko, lurreko atsegiñak zuzenbideko nekeetatik jaioten baitira. Arlo au doan bidean lendik ibillia naiz eta or danik geiena txastaua neukan edo gogoetan neketsuan sarri ausnartua. Beraz ez da ain arrigarri ortik zerbait azaltzea» (8-10 orr).

POEMA BIKAIÑA

J. M. Leizaola'k onan: «Ona, iya eunen bat orrialde-tan, erbesteratu abertzale baten abesti bioztiya. Bizkayez egiña, gipuzkoar guztiz ondo ulertu dezaketen eran idatziya. Jator, jator, jator; orra olerki ontan oartzen degun arnas eta odola. Arnas eta odola garbiak ez al dira osasunaren ezaguera ber-bera? Arnas eta odola garbiak ez al dira Mugarra'ren sendotaduna gure erriari emango diyenak?...

«Aberriya barren-barrenen darama erbesteratutako abertzale onek. Ta badaki erbesteratzearekin urteak igaroaz, azkenean, aita- seme atzerrituak abizenetan euskaldun jatorriya aitortzen ba dute, aberriaren izaera galduta izaten dutela... Gai ori zabalduaz, ez det uste iñoiz gutun ontan datorren «Erbestean» olerkiaren aldekorik egin danik. Sabin'en «Mendiko negarra» ren alako bat da. Etzait ere gogoratzen Gernika'ren erreketeta zitala abesteko emengo «Gernika'rena» bezelakorik».

Zorrotza da olerkari au, ta itz bakoitzari bere esan-nai zeatza ezarten dautsa.

Euskalerritik Mundura Begira

EL SALVADOR

Euskalerritik ikusita, maitagarri eta errukigarri agertzen yagu El Salvador. Maitagarri, gure Euzkadi'ren antzera Laterri (Estadu) txikia dalako; errukarri, Euzkadi bezala odoletan eta iraultza-miñetan suntsiturik dagolako.

Iraultza eta borroka ez dira El Salvador'en gauza berriak. 1821'ean lortu zuan askatasuna, Mexico'tik Iturbide'k emandako laguntzari eskerrak. 161 urte aue-tan, urte aiña iraultza, kolpe, edo borroka izan dauz El Salvador'ek: 161

Euzkadi'n bai; Gauza berria dogu Euzkadi'n iraultza; Napoleo'n borroka zitalak eta karlatarren amairik gabeko gudaketak sortarazia. Len erri alaia, zabala, gizon guztientzat eta pentsabide guztientzat eraspentsua, errespetuzkoa, izan zan Euskalerria. Emeretzigarren mendeak biurto dau gogor, zital, borrokari.

* * *

El Salvador'ko borrokaz ez du, gaurkoz beintzat, irten-biderik. Jaurlaritzak aiña indar bait dabe iraultzalariek. Laterri txikia dalarik, txikia da El Salvador'ko gudaroztea ere.

Ta gudarozte orrek laterri guzian egon bear dau zabaldurik, ez bait daki beñere iraultzalariek non eta nondik erasoko dautson. Auek, errez aldatzen dira toki batetik bestera, eta gaur emen biar an, Jaurlaritzak gutxiena uste

daun lekuan ematen dabe kolpea. Lurralde guzia babestu bear dau-lako Jaurlaritzak ez dezake iñoiz be 3.000 gizon baiño geigo borroka-leku batean iraultzalarien aurka jaurti.

Indarrak berdindurik dagoz an, eta borrokak ez dezake borrokari amaitu. «They are in a tie», airtortu du Hayg Laterri Alkartueta-ko ministroak ere. «Tie» «berdintza» da, eta berdinketa orri irteera bat aurkitzearen, Jaurlaritzak auteskunde batzuk egin-berriak dauz El Salvador'en. Auteskunde oiek, ordea, ez dabe irten-biderik emon. Eskubitarrek altxa dira garaille, eta garaille oiek indarkeri batetik, ezkerreko indarkeritik, beste indarkeri batera, eskumako indarkerira, eraman nai dabe El Salvador.

Ez da erreza El Salvador'en guda noiz amaituko dan, eta nork irabaziko daun esatea; ezta *nork irabazi bear lukean* ere. Alde batekoak bezain iguingarriak bait dira besteakoak. Eskubitarrek militarren diktadurapera eramango dabe erria; eta iraultzalariek, komunismora. Zer diktadura-mota ote da ohea: militarrena ala komunistena? Nondik nora joango ote litzake jende geiago: Arjentina'tik Poloni'ra ala Poloni'tik Arjentina'ra?

Euskalerritik begitatuta, bi diktadurak dira okerrak eta gaiztoak, euskaldunok askatasunzale bait gara.

* * *

El Salvador'ko gudak eta Euzkadi'k jasan bear izan eban gudak, alkarrekin kidetasun aundia dabe, eta guk, euskaldunok, badakigu borrokalarien erotasuna zenbaiterañokoa dan. Arriturik ikusi genduan guk zenbat astakeri egin eben España'n ezkertiarrek eta eskubitarrek. Nork egin ote eban txarkeri geiago?

Euzkadi bakarrik irten zan garbi iguingarrikeri artatik. Deadarka eta zantzoka esan bear dogu au: Euzkadi'ko Jaurlaritzaren menpeko lurretan ez zan orrelako gaiztakeririk gertatu, eta gertatu ziran pixkak, atzerritarrek egiñak, eta laister zigortuak. Emen jaurlaritzak ez eban beste erara pentsatzen ebanik il; gudariek ez eben baituta arrapatutako areriorik tiroka garbitu. Agintariek indar guzietan saiatu ziran beste politika-erakoak ziran guztiak babesten.

Euzkadi'k aren itxurako Jaurlaritza bat bear leuke El Salvador'ek. Euzko-Jaurlaritzak erabili zuan jokaera izango litzake an, eta emen bertan, eta baita mundu guzian ere, indarkeriak sortu dauzen gaitz guztien sendabidea. ¿Nola ordea indarkerira jausi dieran gogoak aldatu? A! nolako gaitza egin daben gure gazteen biotzetan odolaren egarria eta erioztaren gosea piztu dabezenak!

LATIEGI'tar Bixente

QUMRAN'GO ESKU-IDAZKIAK

ESENIOAK

Qumran'go esku-idazkiak, Jesus'en aldiko judar-bakartetxe batetatiko idazki-sorta dira. 1947'garren urtean agertu ziran leenengoak —ez-ustez agertu be— itsaso Illa deritzon ipar-sartzaldeko kobetan, Quirbet Qumran izeneko tokian.

Quirbet Qumran izenaz ezagutzen ziran bakartetxe orma-ondakiñak, 1951 eta 1956'garren urte-artean izan ziran aztertuak, leenengo sorta 1947'an aurkitu ta arein antxiñakotasuna ezagututa gero.

Esenioak izeneko alderdikoena ziran.

Plinio Zaarrak eta Flavio Josefo istorigilleak idatzi ebezan arei buruzko barriak. (Gaur egunean, orraitño, idazle batzuek ez dabe areintzat esenioak izena onartzen, qumrandarrak baiño).

Esenioak itza «oisiaioi» gerkeratik dator, latiñera itzulita, eta izen orrek «izadi-ikastunak» adierazoten dau.

Plinio'k ezarri eutsen izen ori; baiña oker ezarri be, arein elburua ez zan «izadia ikastea»-ta).

Lagunarte bakotxa gizonezko gutxik osotzen eben, baiña bakartetxeak Palestina guztian egozan zabaldua, Jesukristo'ren egunetan guztiz lau millaren bat lagun izateraiño.

Lagunarte nagusia Qumran'goa zan. Ez dira agertzen bein be Alkartasun Barrian.

* * *

KONDAIRA

Qumran'go bakartetxe ori, Kristo jaio aurretiko 134-104 urte-artean izan zan eregia.

Birritan izan zan ondatua: Kristo jaio baiño 31 urte leenago, lurrikara batek ondatu eban, eta Kristo jaio ta 68'garren urtean, Jerusalem ondatu eben erromar-gudarozteak.

Bigarren ondapen ori gaiñera etorkiela konturatuturik, bakarti areik, bakartetxe-ondoan egozan amai-ka kobetan papiru ta narruki (pergamini) batzuk gorde ebezan, lapiko-barruetan.

Gaur egunean, Jerusalem'go museu aundi bietan dagoz.

* * *

ESKU - IDAZKIAK

Esku-idazki orreik balio aundia be aundia dabe, Alkartasun Zaarreko liburu batzuk obeto ezagutze-

ko, baita Joan Bateatzaillearen, Jesus'en eta Elizearen ekitaldiko erlejiño-giroa argiago somatzeko be.

An agertzen dira Isaias'en liburua eta Alkartasun Zaarreko beste millaka idatz-txataltxo, eberkeraz idatzita.

Bibliatik kanpoko idazki batzuk be idoro dabez; euron artean datoz Lagunarteko Arauak, Argiaren semeen gudua Illunpeetako semeen aurka, Gorapen-abestiak, Salmu-sorta barria, eta abar.

Idazki orreitatik dakigu judar-lagunarte aren bizikerea: erlejiño-zaletasunari jarraiturik, txirotasuna, kastitatea ta menpetza gorderik bizi zirala: saduzeuen jentil-kutsapenetik eta pariseuen legeriatatik iges egiteko, basamortura baztatu zirala, eta, Mesias'en egunetan, agindutako lurraldera biurtzeko asmoa ebela.

Beraz, Mesias'i buruz aurretiaz iragarritakoak beteteko aldia be eldu izan zala uste eben.

Judar-erriaren artean zabal-zabal egoan Qumran'go espiritu-zaletasun orrek, istoriaren aldetik, Joan Bateatzaillearen eta Jesus'en iragarreak izan eban arrera ona ulertzen laguntzen dausku.

* * *

Ezagutu daiguzan, ba, orain eta leenen, Qumran'go Gorapen-abestiak euskeraz.

Jakintzat artu bear diran berbak, mako-artean datoz.

I GORAPEN - ABESTIA

[Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna...]⁵ Aal-izatearen iturri, burubidean aundi.

Zure errukiak zenbatu-eziñak dira.

Zure ataza, ikaragarria da. Sumiñean geldia zara, epaitzean; zuzena zure egintza guztietan.

'Zeure jakiturian oiñarritu zenduzan gizaldi betikoak. Areik sortu baiño leen ezagutzen zenduzan arein egintzak 8betiraunetik.

Izan be, dana egiten da zure baimenaren negurrira eta ezin ezagutu daiteke ezer zure naia bagarik.

⁹Edozein espiritu zeure eskuetatik urten zan.

Zeuk ernerazo zenduan bizi-azia.

Zeure bidea erakutsi zeutsan eta bide-zidorra aren egintza guztietarako.

Zeruak zeure aintzarako zabaldu zenduzan.

QU M RAN

¹⁰ Izaki bakotxa zeure naitara sortu zenduan, espiritu aaltsuak euren arauen menpean.

"Santutasun-mandatariak izaten asi baiño leen, espiritu betikoak euren aginpidean, zeure misterioaren negurrira argitu zenduzan.

¹² Izarrak, izar bakotxak, euren bide-zidorra dabe eta aizeak euren oldar zakarrak;

"tximistak zeruan zear arin be arin igaroten dira. Bakotxak bere bidea dau. Zuk lurra oroigailu bat lez egin zenduan. ¹⁴ Itsasoa, lezak, areitan dagoana, Zuk ezerezetik atara dozuz, zeure ugaritasuna erakusteko. ¹⁵ Zu danetan zagoz. Dana zeure naitara eregi zenduan.

¹⁶ Mundu osoa gizonaren zainpean jarri zenduan —betiraun-aldiak—, izaki gustiak bere menpean izan dagizan.

"Euren toki berezietan banandu zenduzan, mugatu egin zeutsezan euren mugak, aldi doietarako. Baiña auziak bere eguna izentatuta dauko eta Zeuk iragarriko dozu izadi guztiaren gaiñean.

¹⁸ Lortutako bakeak iraun egingo dauala uste dabe areik; baiña arein bakea amor-egiten dabenen bakea da.

¹⁹ Arein nagusitza banandua izango da, arein gizaldiak jitoan galtzen diran zusterak lez. Zeatz emoten dozu eritzia.

²⁰ Aurretiaz iragarri aal zan edozer, ezer jazo baiño leen, zeure berban egoan. Zu bagarik ezer be ez da egingo.

²¹ Guzti ori, emon zeustan agerpenari esker, ulertu neban. Nire entzumenak misterioetara eta nire begiak arrigarrietara zabaldu zenduzan; baiña, nor naz ni?

²² Auxe baiño ez: buztinaz egindako izakia, uretan oretutakoa, ama-sabeletik urtendakoa —ama-sabela gorputzaldi-iturri—, gaiztakeriaren su-katilluan, pekatuaren moldean. Zeuk geitu zenduan nire senipar-tea zure biotz-beratasunaren negurrira.

²³ Zer esango dot Zuk ezagutzen ez dozunik?, zer entzunerazoko ete-neikezu leen Zuri esan bagarik izan daitenik?

²⁴ Dana izan zan markatua zure aurrean, dana izan zan zizelkatua betiraun-elburuetarako betikotzen dauan zizelaz. Aldi zeatzak adi-adi begiraten dabe urteak zenbatzen dabezenentzat, egun doi-doiak itxaroten diarduenentzat.

²⁵ Ezer be ezin egon daiteke zure begirunetik ezkutan. Zelan gordeko dau gizakiak bere burua bere

pekatutik?; zelan artu leike goragarritzat bere gaiztakeriaren alde egiterik?

²⁶ Zelan jokatu daike obendun azalduak / azpitik ezin erosi daiteken auzi-ebazlearen aurka?

Zeuk bakarrik dakizu, Jaungoikoa I, noiz arte egintzak zuzenak eta egia benetan dan.

²⁷ Gizonen egintzak, ostera, akastunak dira, arau guzurrezkoak.

²⁸ Miiñak diñoana, edozela be Zeuk egin zenduan espirituaz eraginda dago; orregaitik, berbak euron itu ezagutzen dozuz Zuk eta arein ezpanetako fruituaren jatortasuna ta balioa mustatzen dozuz. Zuk marra bat egiten dozu, igeltsero-berunaz lez [gizonen] esanetarako.

²⁹ Zure eskakizunai sor eta gor egiten yakena, zeure beso gogorraz menperatzen dozu. Ez dozu espirituak negurtzeko soka ta metro bearrianik, ezta arein egi be.

³⁰ Zeure aintza ezaguerazoteko ta zure misterio ezin-esan alakoak ditziratu daitezcan. Zure Izena guztien agoan goratu izan daiten.

³¹ Aldi guztietan Zeu ezagutu ta goratu zagiezan. Izan be, Zu, ³² zeure errukiz, zeure maitasunaren indarraz, gizonari aal-izatea emon zeustan indarkeri aurrean eta dongakeria gaiñeratzeko aalegiñak egin dauzanari aurka agiteko. Orregaitik, zure indarra obeto ditziratzen da zure izaki guztiakan eta zure aal-izatea agertzen dan egintza arrigarrietan.

³³ Areik entzun izango dabe, jakiña ba. Areik, jakitun diralako areik, odol-beroak, azpikeriak pillatzen dabezanak eta erriak jopuratzen dabezanak. ³⁴ Izena «zuzenak» dabena aspertu egingo dira erre-opariak eskintzen eta txiroai buruz ez dira biotz-zabal agertuko. Zuk ez egizuz makalak bertan-beera itzi. Biotz-gogorak ez dabe onetariko ezer be ulertu aal-izango.

Entzun, jakitunok, ezaguerearen billa diarduzue-nok, itxaroten ez dakizuenok: sendo irauteko aalegiñak egizue, geitu egizue indarra.

³⁶ Zuzenok: urrundu egizue zuekandik edozer zuzen Zuek, bide bikaiña aukeratu dozuenok: ba-bestu egizue txiroa |

³⁷ Sumiñerako geldiak izan zaiteze.

Ez baztatu Aren zuzentasuneko agindurik. Aren egintzak zintzotasuna dira.

³⁸ Dongak ez dabe au iñoiz be ulertuko.

Asarrekorrak agin-karraskaka diardue [...].

KEREXETA

BITARAKO ADIZKERAK (2)

Leengo zenbakian, subjuntiboko orain-aldia aztertu genduan. Ikusi daigun gaur subjuntiboko leen-aldia (para que yo lo llevase = NOR-NOK, eta yo se lo llevase a V = NOR-NORI-NOK). Aditzaldi onetan naaste aundiagoa dago, adizkerak gutxiago erabilten diralako-edo.

NOR-NOK eraz, guztiak bat datozala esan daitegu. NOR-NORI-NOK eraz, ostera, (edo NOK-ARI-ZERBAIT argiago), ez ainbeste. Azkue'k NG bagarik dakaz: nik zuri zerbait eroan neizun (edo neizula); Villasante'k N bagarik eta G'az: eroan negizun. Puxana'k eta Zamarripa'k, barriz, NG'az, irugarren personetan izan ezik: eroan nengizun eta egizun. NOR-NOK adizkerak N'az eta NOR-NORI-NOK bigarren N bagarik erabili ezkerro, ez litzake ainbeste naas-terik izango. Ikusi:

Pux
eta
Zamarripa'k eroan NENGIZUN para que V. me llevase (NOR-NOK)
para que yo se lo llevase a V. (NOR-NORI-NOK) = NEGITZUN

Azkue'k
eta
Villasante'k eroan NENGIZUN: para que V. me llevase (NOR-NOK)
eroan NE(G)IZUN (bigarren N bagarik): para que yo se lo llevase a V. = NEGITZUN

Puxana'k
eta
Zamarripa'k eroan NENGIZUEN para que vosotros me llevaseis (NOR-NOK)
para que yo os lo llevase (NOR-NORI-NOK) = NEGITZUEN

Azkue'k
eta
Villasante'k eroan NENGIZUEN: para que vosotros me llevaseis (NOR-NOK)
eroan NE(G)IZUEN (bigarren N bagarik: para que yo os los llevase = NEGITZUEN

Beraz, azkoz argiago Azkue ta Villasante'ren adizkerak erabili ezkerro.

* * *

Aditzaldi onetan be, arei danean, orain-aldirako esan genduan gora-beerea agertzen da: **●** erabili ala ez. An esE genduan ez, *ari* esateko, **●** erabili; eta *arei* esateko, **●** kendu. Begira alde:

Azkue'k (G bagarik)
eta
Puxana'k (G'az) eroan E(G)IOEN para que ellos se to llevasen a el
para que el se lo llevase a ellos
para que ellos se lo llevasen a ellos = (Azkue'k EIOEEN)

Villasante'k: eroan EGIEN para que ellos to llevasen (NOR-NOK)
para que el se lo llevase a ellos = EGIEEN edo EGITSEN
para que ellos se lo llevasen a ellos = EGITSEEN

Beste adizkera bat:

Azkue'k (NG bagarik)
eta
Puxana k (NG az) eroan ZE(NG)IOEN para que V. se lo llevase a ellos
para que vosotros se lo llevaseis a ellos (Azkue'k ZEIOEEN)

Villasante'k: eroan ZEGIEN para que V. se lo llevase a ellos = ZEGITSEN
para que vosotros se lo llevaseis a ellos = ZEGITSEEN

Beste adizkera bat:

Azkue'k (G bagarik)
eta
Pu (G'az) eroan E(G)IZUEN para que el os lo llevase
para que ellos se lo llevasen a V. = EGITZUEN

Puxana'k: eroan EGIZUEEN: para que ellos os lo llevasen (Azkue'k EIZUEN, aurrekoa lez) = EGITZUEEN

Urrengo zenbakirako: AGINTE-ERA (Imperativo).

KEREXETA

OTATZEKO SAGARDOTEGIA

*Otatze baserriko nagusia udal-
letxeke agintariengana etorri zan,
sagardo-upela saltzen jartzera
yoiala jakiñeraztera. Oitura za-
nez, arratsalde artan bertan azal-
du ziran Otatzeko baserrian erri-
ko agintariak ango sagardo ba-
rria aogozatzera ta upatxotxa ze-
lan ipinten eben ikustera.*

*Oitura ori bere ondoren, urte a
urte txarra zala-ta, sagardo-pita-
rra lau ziritan bakarrik saltzeko
agindu zorrotza emon eutsen Ola-
tzekoai.*

*Otatzeko nagusi, Peruk, burua
azkaka, agintarien esana itxuraz
onartuz, ...oitura zan lez, sagar-
doa salgei egoala adierazoten
eban, lizar-arbazta ate-aurrean
ipiñi eban.*

SAGARDOTEGIAN

*Arratsalde erdian, jentea ba-
tzen asi zan. Banan-bana, eta
mixterio andiz erdi illunpetan
egoan sagardotegira sartzen zi-
ran. Sagardoa ederrenetarikoa
zan: garbia, lasto, lasto kolore-
koa, idorra, eta basua betetzera-
koan apar-bits ederra eriona.*

*Laster bere iziotu eben, batetik
bestera erabillen labetxua; eta
ikustekoak ziran ango txinparten
artean, bertan erreten egozan ber-
del, xardin, txitaxarro ta okel zati
ederrak!*

*Egun aretan Otatzeko base-
rrian azaldu ziran sagardozale
guztiak iñoen, ao betez; sagardoa*

*ezin ohea zala; ona bai, baiña ka-
ruegi, bost ziritan saltzeko.*

AUZIA

*Upela asitako urrengo egu-
nean, erriko agintariak bidalduta,
eskribanua etorri zan baserrira,
salneurria lau ziritan jartzeko
aginduaz. Eta agindu ori betetzen
ez baeban, ogei dukaten zigorra
izango ebal.*

*Otatzeko Peruk iskribauren
agindua entzun ondoren, ...neurri
andian saltzeko baietz, onartuko
ebala, erantzun eban, ...bainan ez
neurri txikitan, basoka. Eta esa-
naz gaiñera, orretara beartzen
ba'eben, sagartotegia itxiko ebal.*

*Erriaren agindua jakin ondo-
ren, eta eskribanuari jaramon
geiagorik egin barik, solora abia-
tu zan Peru, etxeko beien janaria
ekarteko atxakiaz. Eta bere alaba
Beñardak, purrusta andi bategaz,
sagardotegiko atea itxi eban ber-
tan, barruko jente guztia kapora
boteaz.*

EZTABAIDA

*Urrengo egunean, erriko alkate
jauna beste agintari batzuekaz
Otatzeko baserrian agertu zan.*

*Etxekojaun Peruz itandu, eta
ez zan au iñundik be agertu.*

*Etxean egozana' egin eutsen
berba, orduan, alkateak, eta 20
dukateko zigorra ordaindu bear*

*ebela jakiñeraziz gaiñera, sagar-
dotegia bereala zabaltzera beartu
zituen.*

*Ta auxe erantzun eban, esarre
biziz, etxeko alabak: ni ez naz
ezegaitik be sagardoa saltzen asi-
ko.*

*Sagardotegiko giltzak eskatu
zituen orduan alkateak. Eta ezez-
koa entzun ebanean, alboko gazte
bateri, atzekoaldean sagardote-
giak eukan tarte batetik sartu eta
atea zabaltzeko, agindu eutson.*

*Ordu onean...! Etxekoak, upa-
txotxa zabaldu, ta upela ustutzen
yoian, iñoren irabazi barik.*

BAKEAK

*Alkateak beragaz ekarran sa-
gardoa saltzen asteko andra autatua.
Eta au upel aurrean ezarri
zanean, bereala asi ziran sagar-
dozaleak, txinpartak eriozan sa-
gardo eder a edan eta edan.*

*Onetan, Beñardak beste jokabi-
derik ez egola ikusi, jai egunetako
eukazan galtza gorri politak an-
ketan jantzi, ta... an azaldu zan
bera, iñungoen polit eta alaitu
etzeko sagardoa saltzeko prest.*

*Tasako neurrian salduko eba-
la, agindu eutson alkateari, eta...
auzoko mutil guztiak erdi zoratu-
ta eukazan, neskatil poxpoliña
upel aurrean egoan aulki txikian
ezarri zan, barriro.*

ESTINBA 'tar Manuel

GIZA-ARAZOA

eta

NAZIO-ARAZOA

Euskalerrriak gaur egun arazo aundi bi ditu, bata Ez da zertan askorik pentsa, Euskalerrrian Espagiza-arazoa eta bestea nazio-arazoa. Erri bat gizarte ñiako sindikatoak indar aundia dabeelako, langile bat da, gizonez egiña dagoalako, gizonek beste gizon onak izango dira baiña geienak ez diralako euskalbatzuk bear ditualako bizitzeko, ta alkartasuna mundun langileak, giza arazoa, klase arazoa argi dabeeladuko gauzarik ederrenetarikoa dalako.

Baiña sarri gizona aundikeri eta norberekeri batena, errizaletasuna. ten morroi biurtzen da eta bere naia betetzeko beralako beste gizonak menperatu egiten ditu, diruaren bitartez eta indarraren bitartez.

Bardintasuna, Kristoren bardintasuna, Komunismoa, Kristoren bardintasuna, bardintasanaren siñisdunen emen dago arazoaren biotza. bardintasuna lortzeko, gizonak gizon izatea itxi bear dau bere izakera orokorraren norberekeria alde batean itxi bear dau eta gitxi dira ori lortzen dabenak.

* * *

Orregaitik gure gizartea zatituta eurkitzen da, egun baten ezin leikez gauzak, arazoak konpondu, jaunak eta morroiak, dirudunak eta txiroak eta euren baiña nik neuk diñot, konpontzen asi be ez? artean beste milla zati.

Gure azken-urte oneitan zati bi ondo ezbardinñak dira arazo onen buru, aide batetik langileria eta beste batetik nagusiak eta burgesia.

Azalpen au egin ondoren goizan gure arazo garrantzitsuena azaltzen: nazio-arazoa.

* * * **dira razistak eurak euskaldunak dira Euskalerrrian bizi diralako eta gero euren dirua euren errira, atzerriera eroaten dabeelako.**

Euskalerrriak bere nortasuna oraindik ez dau lor- Gitxi dira benetan kanpotik etorri eta euskaldun- tu nire ustez eta ori da gaur egun euskaldunok lortu du egiten diranak eta benetan Euskalerrria maite da- bear doguna. Euskalerrriak ba, giza-arazoarekin ba- beenak. Elduko da edo eldu leike eguna Euskalerrria tera, klase arazoarekin batera, beste arazo aundi askatuta izango dana baiña Euskalerrria euskaldunik aundi bat darama lotuta: Euskalerrriko langileria «ez gabe, Euskalerrria euskerarik gabe, zertarako dogu? da euskalduna», ez da berezia.

Zergaitik diñot ori?

MUNIATEGI Asier

ASTIRO

Oto ta Pototo

ZURIAK ALA BALTZAK

Olako baten gizon bat zoro-etxera eldu eta atea jotzen dau.

—Ba dua iñor or barruan?

Ez emen ez dago inor!!! —barrutik—

Ezkerrak ez nazela etorri —erantzuten dau kanpokoak—

* *

Batzar baten entzuna. Diru arlokoa da:

Eta zelan olako arazoak?

Ba, naiko ondo, tornillo bakoitzean lauerleko bi galtzen doguz, baiña eskerak asko saltzen doguzala.

* *

Zoro biren tarteko alkar-izketa:

Nik dirua naikoa aurreratzen dodanean motor bat erosi bear dot.

Nik ostera bei bat.

Polito emongo dautsu bei baten ganean joateak prizaz zabiltzanean.


Bai, baiña zuri be polito emongo dautsu esnea gura dozunean motorra aresteak!!!

Bein batean baserritar baten soloan sator bat ebillen, eta baserritarra guztiz arduratuta ebillen ezker sator-arte bat ipini eta urrengo egunerako arrapatuta

eukan, eta gaiñera bizirik arrapatuta. ,
Eta zer egingo dozu sator orregaz!

!!? illea zigor txikia dau! BIZIRIK lurperatu bear dot!!!

23.a



22.ª ERANTZUNA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1	E	R	B	E	S	T	E	R	A	T	V	A			B
2	L		R		U	R		R		A	R	I			
3	D		M	A	I			I	T	U	R	Z		R	
4	U		A			G	A	U	B	E	L	A		I	
5	E	N	D	O	R	E	A					A		A	K
6	R		A			B	A	S	E	R	R	I		A	
7	A		R		E	N	E			G		K			
8		B	I		G	E	U			I	Z	A	F	E	R
9	G	A		D	A	U	K	A		T		R			
10	A		A		R	A	T	Z	E	R	A	T	U		
11	B	E	D	E	R	A	T	Z	I				U	R	I
12	E		I		I	T	Z		R	O			Z		
13	R		E			O	K	E	R	T	U	T	A		
14	D		A		R		N	I		D		D		T	
15	I	D	A	Z	L	A	N		N	A	I	G	A	B	E

Gorri

EZKER ESKUMARA: 1. Desterrado (el).-2. Hilo.-3. Mesa.—Fuente.-4. Velada.-5. Alcalde.—Los, las, aquel.-6. Aldea, caserío.-7. Exclamacion de sorpresa.-8. Dos.—Nosotros.—Condicion (modo de ser).-9. Sujeto privacion.—Tiene.-10. Atrasar, aplazar.-11. Nueve.—Ciudad.-12. Palabra, promesa.-13. Torcido.-14. Gusano, macho.—Yo.-15. Obra literaria.—Pena, disgusto.

GOITIK BERA: 1. Llegada.—Medianoche.-2. Pues.-3. Pera.—Sentido, significado.-4. Estilo, forma.-5. Sed.—Poder, dominio.-6. Yo mismo.—Sacar, sustraer.-7. Tu mismo, tu.—Reloj.-8. Ea, a ver si.—Dedo, rastro.-9. Coger, recibir.—Movimiento.-10. Iniciales de Capital-Ciudad.—Accion.-11. Oro, cerca.—Borracho.-12. Demasiado.-13. Col.—Visitar.—Verano, estio.-14. Agua, proximo.-15. Pulmon.—Ente, ser.

EUSKERAZALEAK

EUSKALTZAINDIARI EPAIKETA

Idaztarian agertzen diran izenak ainbat dira-ta, begiak zabal eta entzumena ona dabenentzat aukerakoak dira. Begiak itsu ta belarriak gor daukezenentzat, ostera, ezerez utsak.

Izen batzuen artean oneik doguz: Alvarez, Krutwig, Ukronia, ETA, Villasante, Real Academia Hachista, zina, Arana'tar Sabin, Alderdia, Azkue, Mitxelena, ta abar.

Giza-semerik asko errukigarri dira. Aundikeriz, arrokeriz, izkuntza il-nairik dabilzanenak. Kupidarik gabeko eta biotz-gordina dira, bide orretan jokolari aulak.

Real Academia ez da gaur-egun euskerearenganako ontasuna billatzen diarduana.

Padre Villa'gaz asirik eta bere jarraitzaileakaz jarraiturik, erdera utsera doakiguz-eta.

Alvarez, Krutwig eta Ukronia bera be euskera oni kalte egiteko jaoak izan zirala, or zear diñoena egia ba'da beintzat.

Eta Mitxelena'ri buruz zer esan geinke?

Abertzale-abertzalea ta giltzaperatua izan zan au, batu-naspildua onezpentzera etorri dala. Etorri, eta gorengo zizailluan jesaririk, azken-atsetan dagon euskerea, euskara, euskuara gaisoa ondatzera azaldu dala (Ondatzen ba'da, ondatu daitela. Ondo bizi gaitean eta gerokoari or-konpon).

Alderdia euskereari buruz, isil. Onek be ba-dauka zulo aundidun baehren bearrik, onak eta txarrak aukeratzeko-rik.

Ez ete dabe kaleetan «Agirre Lehendakari Kalea» ikusten?

Lehendakaria oraingoa da, aurreko biak LENDAKARIAK ziran.

Garaikoetxea txit jauna, gorengoena; Zatika, arian-arian, txiri-txiri, zin egindakoen izkuntz eta izatera daroas-kuzu erria.

II zana illik dagoalarik, bizitzan bezela begirapenez epaitu bear dogu, epaitu bear ba'da beintzat.

LANDAJUELA'tar A.'k

"EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEIA

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketeia eratzen dau.

Sariketeia onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

— Euskera biziz idatziak izan bearko dabe. Erriak darabilen euskal bat erabilliaz idatziak.

— Ipuin itzulpenak ez dira onartzen.

— Luzerea, orri-alde bi, bitarte bi lerroartean dituela.

— Epea: Jorraillaren azkenerako gure Ian-etxean (Colon de Larrea-tegui **14, 2.^a** eskoia) izan bearko dabe.

— Sariak: Iru sari izango dira: 1.^a 25.000 pezeta; 2.^a 20.000 pezeta eta 3.^a 15.000 pezeta.

— Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango eta ZER gure al-dizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearko dabe.


- Oitura dan lez, ipuina izen-ordez bialdu eta izen-orde ori gainean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroan txartela.

— **Maikoen erabagia, bagilleko (ekainilleko) ZER'en agertuko da.**

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupié en nosotros

Zenre urtea zuzan



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**